

GAUUA

Iñaki Erkizia Jauregi



Gaua oso ederra zen. Zeruan ez zen hodeirik ageri eta izarrak, ilargiaren faltan, nagusi ziren ortzean. "Zenbat ote daude?" Galdera hark eta aurrean zeukan ikuskizunak bere pentsamendua betetzen zuten, aspaldiko partez, bere barrua kolpatzen zuen errealtatea uxatuz. Edo gutxienez berak hori sinistu nahi zuen.

"Bat, bi, hiru... Ezinezkoa da denak kontatzea, gero eta gehiago azaltzen dira". Ozenki ari zen hizketan, nahiz eta entzule bakarra bera izan.

Itsaso aldeko haizeak aurpegian ematen zion. Udako egun bero baten arratseko haize gozoa zen, zoko guztiak freskatu eta indarberritzera zetorrena. Izugarri gustatzen zitzaion haizea, bai ifarrekoa bai hegoaldekoa. Baina aspaldian ez zuen izan hartaz gozatzeko aukerarik.

Han behean jendea kalera ateratzeko prestatzen ari zen, aurrean zeukan parrandak zer ekarriko ote zion irrikaz. Garai batean berak ere ilusio handia izaten zuen larunbat gaueko abenturetan. Aste osoko parreak eta komentarioak hori izaten zuten abiapuntu eta helburu. Orain ordea, dena indiferentzia sakon batez ikusten zuen eta horrek bakardade zentzazioa areagotzen zuen.

Aurrera begiratu eta Hendaia baino urrunago ikusten zela ohartu zen. Leku hura ondo zegoen, baina ez zen harritzekoa hara inor ez hurbiltzea, lurrean zeuden jeringilak ikusita. Horrela hobea.

Kilkirren hotsa ederki antzematen zen handik. Betidanik atsegina iruditu zitzaion, sedante baten efektua izaten zuen beregan. Herriak berak ere ederra zirudien handik ikusita. Ez zuten inoiz asmatuko Erreterria bezelako leku batetaz sekula hori pentsatuko lukeenik.

Eskuak patriketara eraman zituen Lucky paketearen bila. Hiru zigarro besterik ez zitzaizkion gelditzen. Etxe haren sotoaren ondoan taberna bat ikusi zuen igotzerakoan. Orduan barre hotz eta ironiko bat atera zitzaion.

Biriketan kea nola sartzen zen nabaritutara hobeto sentitu zen. Metxeroari begiratu zion. Beltza zen eta letra handiz eta bereziz "De Cyne Reina" jartzen zuen bertan. Ziurrenik han egongo zen orain martxa bila zebilen jendea, gauak zer eskeiniko, astero bezela.

Zigarroa erretzeko barandila gainera igo eta han eseri zen. Azkenaldian buruan zerabilen hura etorri zitzaion pentsamendura. Berrito ere gorantz eraman zituen begiak. Zigarroaren keak eta malkoek irrealitate itxura ematen zioten orain zeruari.

Erretzeaz bukatu eta ladreiluzko barandilaren aurka itzali zuen zigarroa. Urduritasun zirrara batek goitik behera astindu zuen. Begiak itxi eta bere barruan esperantza apur bat bilatu zuen, arrazoi bat, baina aurkitu zuen gauza bakarra gauaren dei sendoa zen. Orduan, zutik jarri, pausu bat eman, eta gaua besarkatu zuen.